

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Goenaga Aiestaran

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1925-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Zegamakoa zuen ama, etxekoandrea; aita, Tolosakoa, Amaroizko paper-fabrikako langilea. Sei senidetan bosgarrena, fabrikak jarritako etxean bizi ziren denak. Amaroizko eskolara joan zen 14 urte arte, gero, paper-fabrian hasi zen lanean eta bertan pasa zituen 40 urte. Urtero, hilabete batez, arraunerako prestatzen zen Amaroizko batelarekin San Juanetako estropadan parte hartzeko. Denbora librea zuen apurretan, ehizara joatea eta nobelak irakurtzea atsegin zuen. [Maria Eugenia Uriarte Urretabizkaia](#) rekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

Zintak

TOL-059

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-10-04
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

TOL-060

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Soroa Hernandez, Maddi
- **Data:** 2011-10-04
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Maistrak eta jolasak

- **Erref:** TOL-059/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:06:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Maria Luisa Olano, Jesusa Gogorza eta Engrazia maistrak ezagutu zituzten. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Jolas-orduan, eskola azteko belazean futboleant aritzen ziren mutilak; neskak, berriz, beste jolas batzuetara aritzen ziren.

2. Ziban, kaniketan, futboleant...

- **Erref:** TOL-059/007
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:11:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Mutilak ziban eta kaniketan aritzen ziren. Javierri aitona egin zion ziba. Kaniken jokoa azaltzen dute; kanikak galdu edo irabazi egiten ziren. Baloiak beraiek egiten zituzten eta errepidean jolasten ziren. Belar desberdinak batu eta dendetara jolasten ziren: belarrak saldu eta harriekin ordaindu. Neskak ere aritzen ziren futboleant eta pilotan. Txokotara ere aritzen ziren.

3. Gerra hasiera

- **Erref:** TOL-059/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasierako oroitzapenak. Maria Eugeniaren etxean gizona mendira joan ziren mendira eta umeak amarekin gelditu ziren. Kanoikadak paper-lantegira botatzen zituzten. Aireplanoei begira egoten ziren. Gauza asko ikusi zituzten.

4. Gerran etxea utzi behar

- **Erref:** TOL-059/009
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Maria Eugeniaren etxea frontearen erdian zegoela-eta, Tolosara joan ziren bertako etxe batera. Nafarrak Tolosara sartu zirenean bueltatu ziren berriro ere. Javierren etxekoek ere bide bera egin zuten.

5. Jatekoa Nafarroan erosi Tolosan saltzeko

- **Erref:** TOL-059/012
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:21:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Maria Eugeniaren nebaren etxera joaten ziren irratia entzutera. Goserik ez zuten pasa, Nafarroa aldetik ekartzen baitzuten jana. Jatekoa handik ekarri eta herrian saltzen zuten. Sasoi hartako hainbat bizipen dakartza gogora Jabierrek.

6. Antxumeak ezkutuan ekarri

- **Erref:** TOL-059/013
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:21:37. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, haragia nahi izanez gero harategian txanda eskatu behar izaten zen. Behin antxumeak ekarri zituztenekoa kontatzen du Jabierrek. Ez zuten beldurrik izan. Irabazitako dirua amari eman behar izaten zitzaion.

7. Soldata amari eman behar

- **Erref:** TOL-059/014
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Irabazitako dirua amari eman behar izaten zitzaion. Jabierrek 4.90 irabazten zuen eta Maria Eugeniaren lehen soldata asteko 21 pezetakoa izan zen. 14 urterekin hasi ziren lanean.

8. Paper-lantegiko lanak

- **Erref:** TOL-059/015
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:26:54. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza

Laburpena:

Amarozko paper-lantegian egiten zuten lana eta bertako betebeharrak azaltzen dituzte. Dena egin behar zen eskuz. Makinak heldu zirenean, lanpostu asko galdu ziren. Lantegia antzinako zen. Beraiek aritu ziren garaian langile asko zeuden.

9. Paper-lantegirako pasta

- **Erref:** TOL-059/016
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:30:18. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza

Laburpena:

Paper-lantegirako pasta atzeritik ekartzen zuten. Pasta nola egiten zen eta ematen zitzaion tratamendua azaltzen dute. Egurra bukatu zenean, belarrarekin hasi zinen lanean. 200 kilo inguruko pasta-fardoak ekartzen zituzten.

10. Sendabelarrak

- **Erref:** TOL-059/020
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:47:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Osin belarrak egosten zituzten katarrorako. Pasma belarrak zaurietarako erabiltzen zuten. Enplastoak berbenarekin egiten zituzten minarentzako.

11. Ezkon-bidaia Bilbora

- **Erref:** TOL-059/023
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:53:55. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkondu zirenean, zazpi eguneko oporraldia izan zuten paper-lantegian. Andra Marin ezkondu ziren eta Bilbo aldera joan ziren bidaian. Paper-lantegiko soldata gero igo zuten.</p>

12. Igandetean dantzara edo zinemara

- **Erref:** TOL-059/025
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:58:33. **Bukatu:** 01:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Etiket lanera eta lanetik etxera bizi ziren gaztetan. Igandetean joaten ziren

plaza berriko dantzaldira. Gorritiko zinemara ere joaten ziren. Hala ere, batzuetan, lanera ere joaten ziren makinak garbitzera, eta pozik joan ere; izan ere, aste guztiko jornala baino gehiago irabazten zuten orduan. 2.50 pezeta balio zuen zinemako sarrerak.

13. Zinema eta titiriteroak

- **Erref:** TOL-059/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:02:02. **Bukatu:** 01:03:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zineman ikusten zituzten pelikula zuri-beltzezkoak eta gaztelaniazkoak ziren. Hasieran NO-Doa botatzen zuten. Zine mutua. Titririteroak ere ikusten zituzten kalean.

14. Liburuak eta egunkariak

- **Erref:** TOL-059/027
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:03:43. **Bukatu:** 01:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Jabierri beti gustatu izan zaio irakurtzea. Liburu bat erosi eta idazten joaten ziren. La Voz de España eta El Diario Vasco egunkariak irakurtzen zituzten. Normalean igandez irakurtzen zuten egunkaria, eta astelehenetan La Hoja del Lunes futbol-emaitzak ikusteko. Jabier beti izan da athleticzalea.</p>

15. Tolosako futbol-taldea

- **Erref:** TOL-059/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:06:22. **Bukatu:** 01:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Tolosan beti egon da futbol-taldea, Jabier sozioa izan da. Bertako hainbat jokalarai aipatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com